

LITERATURA IKASGELAN

(II) Eta begiak itxi zituen

Abel Camacho

Pedro Lonbide

Santurtziko Udal Euskaltegia

2012ko otsaila

Lizentzia

Literatur testuak: © idazle bakoitzarena

Ikas-materialak:



IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Literatura ikasgelan proiektua

Literatura ikasgelan izeneko proiektuaren helburu nagusia literatura euskara-ikasleei hurbiltzea da, literatur testuez gozatu eta hizkuntza aberasteko. Ez da literatura edo kritika ikastaro bat, baizik eta literaturara atseginez hurbiltzeko ahalegina.

Hainbat literatur testuren lanketaren bidez (gehienetan narrazioak izango dira), literatura irakurtzea atsegina izan daitekeela eta literatur lanak irakurtzea ez dela lan aspergarri eta nekagarria erakutsi nahi da.

Honako puntu hauetan oinarritzen da proiektua:

- Literaturaren irakurketa **erronka kognitiboa** da, zailtasunei aurre egin eta borroka horretatik plazerra lortzea. Era askotakoa izan daiteke erronka: istorioarekin lotutakoa edota narrazioaren osagaien ingurukoa. Literatura zaleak bilatu egiten ditu erronka horiek eta horiek gainditzeko egin behar duen esfortzuak **plazerra** ekartzen dio, kirolariei gertatzen zaien bezalaxe.
- Literaturaren lanketak lagundu egin dezake ikasleen **gaitasun komunikatiboa** areagotzen. Literaturak jolastu egiten du hizkuntzarekin eta komunikazioa hizkuntzaren erabilera arruntak ez bezalako oinarriekin lortzen du. Hizkuntzaren erabilera ezberdinek elikatu egiten dute elkar eta erabilera guzti horiek garatu egiten dute gaitasun komunikatibo orokorra.

Beraz, material hauen bitartez hainbat helburu lortu nahi ditugu:

- Literatur testuen irakurketak plazerra sortzea
- Ulermenerako gaitasuna areagotzea
- Testuen ezaugarriak eta antolaketa ezagutzea

Horretarako, ondorengo prozedurak erabiliko ditugu:

- Narrazio bakoitzaren osagai testualen analisia
- Osagai bakoitzaren erabilera arrunta eta erabilera literarioa
- Erabilera literario horrek ulermenean duen eragina

Hona hemen lanketarako aukeratu ditugun narrazioaren osagaiak:

- Ikuspuntua eta narratzailea
- Pertsonaiak
- Denbora
- Lekua
- Istorioa

Aldian-aldian argitaratuko dugu atal berria.

Hartzaileak

Hainbat izan daitezke hartzaileak:

- Europako Erreferentzia Markoaren C1 mailako ikasleak. Dakigunez, C1 maila EGA, HABEren hirugarren maila edo IVAP-HAEEko hirugarren hizkuntz eskakizunarekin parekatzen da.
- Batxilergoko ikasleak

Erabilera

Ikas-material hauek literatur testu batzuen lanketarako proposamenak dira. Materialak lau ataletan daude egituratuta:

- **Egilea**

Egilearen inguruko hainbat argibide eskainiko dira eta ikasleei informazio hori osatzeko eskatuko zaie foro baten bitartez.

- **Ipuinaren irakurketa**

Hauxe da gai bakoitzean bloke nagusia. Proiektu honen helburuari jarraiki, bi irakurketa-mota eskatuko zaizkio ikasleari. Lehehengoan, ipuina izango du ikasleak bere horretan irakur dezan. Izango dituen arazoak aurreikusita, bigarrenean irakurketa gidatua eskaintzen zaio. Bloke nagusi hau irakurri bitarteko iruzkinak (arazoak, iritziak, usteak...) egiteko foro batekin osatzen da.

- **Ipuina irakurri ondoren**

Irakurketa-prozesua eta lortutako emaitza aztertzeko foro bat proposatzen da atal honetan. Bestalde, molde bereko beste lan batzuk (irakurgai, filma...) eskainiko zaizkio ikasleari aztertutakoan sakon dezan.

- **Material osagarriak**

Bigarren atala (ipuinaren irakurketa) aberastera eta kontestualizatzerara dator. Hainbat baliabide eskainiko dira bertan gaiarekin, baliabide diskurtsiboarekin... lotuta. Hauen erabilera aukerakoa da eta beste batzuk erabil daitezke horien ordean.

Jakina, hauek ez dira hurrenez hurren erabili beharreko ikas-unitate itxiak. Are gehiago, komeniko litzateke irakasleak tokian tokiko erralitatara egokitzea, eta hartara, ariketa batzuk aldatu, kendu, bestelakoa gehitu... bere ikasleen beharrei erantzute aldera.

Ikas-material hauek erabiltzeko, ikastaroa jaitsi egin behar da, zatika edo osorik, eta nork bere plataforman berreskuratu eta bertan erabili.

Formatua

Literatura ikasgelan proiektua osatzen duten ikas-materialek Moodle plataformaren ikastaro-formatua dute. Ikastaroa gaika antolatuta dago: literatur testu bakoitzak gai bat hartuko du. Ikastaroa osorik edo gaika jaitsi daiteke eta erabili nahi duenak jaitsi ondoren bere plataforman berreskuratu eta bertan erabili behar du.

Ondokoak dira betekizun teknikoak:

- Moodle-ren 2.0 bertsioa derriogorrezkoa da
- Ikastaroko fitxategiak bilgunea gaituta egon behar da
- Book edo liburua modulu ez-estandarra instalatuta egon behar da
- Osaketa eta eskuragarritasun funtzioak gaituta egon behar dira gunean eta ikastaroan

Horrez gain, .odt nahiz .pdf formatuetan ere eskura daitezke.

Materialak jaisteko gunea: <http://ikasgela.santurtzieus.com/course/view.php?id=118>

Orain arteko ikas-materialak

- **Merke merke. Xabier Mendiguren**
Ipuin honen lanketan narratzaile-aldaketa izan da gakoa.
2012ko urtarrilean argitaratu genuen.

Irakaslearen gida

- Xehetasun gehiago hemen: <http://ikasgela.santurtzieus.com/mod/book/view.php?id=15661>

ETA BEGIAK ITXI ZITUEN

EGILEA



XABIER ETXANIZ ROJO

Trintxerpen (Pasaia) jaio zen 1971ean. Euskara-irakaslea da AEKn eta *Berría* egunkariko kolaboratzaile. Hainbat ipuin-liburu idatzi ditu, kronika-liburua eta nobela bat.

INTERNETen

- Etxaniz wikipedian: http://eu.wikipedia.org/wiki/Xabier_Etxaniz_Rojo
- Etxaniz Auñamendi Entziklopedian: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/46015>
- Literaturaren zubitegia: <http://zubitegia.armiarma.com/?i=446>

NARRAZIOA

"Eta begiak itxi zituen" *Begiak itxi eta kitto* liburua osatzen duten ipuinetako bat. 2000an eman zuen argitara Elkar argitaletxean.



EGILEA

ZER DAKIZU XABIER ETXANIZEZ?

Ariketa honetan Xabier Etxanizi buruzko informazioa bilatu behar duzu interneten. Hori egindakoan, idatz ezazu testu labur bat idazle honi buruzko daturen bat edo beste emanez:

- Datu biografikoak
- Argitara emandako lanak
- Estiloa
- Idazlearen iritziak hainbat gairi buruz
- (...)



Hemen dituzu agian erabilgarri izan daitezkeen web erreferentzia batzuk:

- Etxaniz wikipedian: http://eu.wikipedia.org/wiki/Xabier_Etxaniz_Rojo
- Etxaniz Auñamendi Entziklopedian: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/46015>
- Literaturaren zubitegia: <http://zubitegia.armiarma.com/?i=446>

Osa itzazue denon artean jasotako datuak, testu bakar bat sortuz.

IPUINAREN IRAKURKETA

ETA BEGIAK ITXI ZITUEN

XABIER ETXANIZ ROJO

Gaupasa egin ondoren, goizeko tren hartu eta etxera joatea oso gauza arrunta da. Hamaika aldiz egindako bidaiak. Batzuek kotxerik ez dutelako. Beste batzuek, alkohol gehiegi edango dutelakoan, kotxea etxean utzi dutelako. Nolanahi ere, goizeko tren horietan jende ezberdin asko elkartzten da, nahiz eta beraien artean hitz bakar bat ere ez esan. Gehienetan erdi hutsik doazen bagoi horietan, mozkortia eta langilea, parrandazalea eta mendizalea, elkarren aurrean esertzen dira. Ohetik altxatu berria lanera doana eta, *lana* egin ondoren, ohera doana. Berehala ahaztutako zaizkizun aurpegi arruntak... edota hain erraz ahaztuko ez zaizuna, baldin eta niri gertatu zitzaidana gertatzen bazaizu.

Bera Tolosako apeaderoan sartu zen. Goizeko 6ak ingurua izango zen. Iruna ailegatzeko ordu eta laurden falta zitzaidan, eta nire begiek, aspaldiko partez, ohea besterik ez zutela ikusi nahi esaten zidaten. Hala ere, bera bagoian sartu zenean, berehala *esnatu* nintzen, nire aurreko eserlekuan eseri baitzen.

Bagoia erdi hutsik zegoen.

Eseri zenean, "kaixo" lotsati bat baino ez zuen esan eta nik "epa" erantzun nion.

Oso polita zen.

Bere jazkeragatik lanetik ez zetorrela erraz asko ikusten bazen ere, ez zeukan gaupasazale guztioi geratzen zaigun *ohe-bat-behar-dut-erdi-mozkortuta-nago-ta* aurpegi hori. "Nondik etorriko ote da?" pentsatu nuen.

Bagoiaren beste puntan bidaia osoa musuka eman zuen bikotea, Anoetako geltokian jeitsi zen, gu biok bakarrik utziz.

Ni baino 10 urte helduagoa izango zen, 30 urte ingurukoa.

Begiratzen hasi nintzaion. Hala ere, begira nengoela konturatu bezain laster, beste aldera begiratu nuen erabat lotsatuta. Berehala ohartu nintzen kanpoko iluntasunak leihatila ispilu bihurtzen zuela; beraz, zuzeneko begiradak eta *ispiluak* eskaintzen zidan aukera tartekatzen hasi nintzen nire azterketa egiteko.

Eta ikusten nuena oso gustokoa nuen.

Soineko beltz bat zeraman leporaino, mangarik gabekoa. Atzetik lotzen diren horietarikoa. Ez zeukan eskoterik. Ilea, *Pulp fiction* pelikulan ateratzen den neskarena bezalakoa, hots, zoragarria. Ezpainen, gorri leun batez margotuak, edonor zorionaren mundura eramateko sortuak zirela ziruditen. Bere begiak marroiak ziren. Oso handiak. Begirada marroi hori mantentzea, ezerosoa izateaz gain, ez zitzaidan batere erraza suertatzen. Dena dela, oso erakargarriak ziren.

Hori guztia ikusita, neure buruari debekatu nion lepotik bera ikusten nuena aztertzen jarraitzea, ordurako bero samar bainengoen, baina, askotan gertatzen den legez, nire begiek ez zidaten jaramon handirik egin.

Ez zuten nahi izan.

Eta begietatik jeistean, zerekin eta bularrekin egin zuten topo, eta nire begi maltzurrek hortik azterketa sakon bat egin arte ez mugitzeko erabakia hartu zuten. Erabaki honek urduritasun zein antsia handia sortarazi zidan, bera titiei begira nengoela konturatuko zela ziur bainengoen. Handiak ziren. Akaso soinekora

estuegia. Formak oso ondo markatuak zeuden. Bikainak. Titi punta pare horrekin zer pentsatzen hasi nintzen eta ideia dexente bururatzen zitzaizkidanez, beste alde batera begiratzera behartu nuen nire burua.

Baina ezinezkoa izan zen.

Orduan triangelu perfektua asmatu nuen: *bularrak-begirada-ispilua*, eta angelu ezberdinetatik begiratzeari ekin nion. Baina nire begiek triangeluaren goiko angelutik bueltatxo bat eman eta bere begiradarekin topo egin zutenean, urduri jarri ninduen zerbait aurkitu zuten. Bera ere antzeko *azterketa* bat egiten ari zen eta jada bere begiradak ez zuen alde egiten. Azterketa bukatzeko piska bat beherago jo behar izan nuen. Hankak gurutzatu zituenean, gona luzeak zango sendo bat utzi zuen agerian. Honen gainean, belaunean, eskularru luze pare baten barruan, atzamarrak jolasten hasi ziren, eria behin eta berriro emeki mugituz eta nire irudimena lehertaraziz. A ze nolako laztan goxoak egingo zituzten atzamar trebe horiek!

Eta bat-batean... begiak itxi zituen.

Jarraian, mingainak ezpain gorriak leunki miazkatu zituen eta lehen gurutzatuak zeuden hankak. Jadanik ez zeuden hain gurutzatuak. Eserlekuan egokitu zen. Belaunean jolasten aritutako hatzek beste jolas bat bilatu zuten, bai eta aurkitu ere. Nire begirada harrituaren aurrean, soineko beltz horren gainetik hasi ziren titiburuak laztantzen. Eta zin dagizuet: oraindik harritzen nau une horretan, ene bihotzaren taupada izugarriak entzun ez izanak.

Bera bagoian sartu bezain pronto, holako neska puska batekin nire etxeko ohean egingo nituzkeen milaka lizunkeria bururatu zitzaizkidan eta une horretan, berriz, pentsatutakoa gauzatzen ari zenean, ea bagoia hutsik zegoen jakitea besterik ez zetorkidan burura.

Hutsik zegoen.

Bitartean, beste ezarrera egokiagoa lortzen saiatu zen. Lortu zuenean, eskularru beltzak kendu eta lurrera bota zituen, bere eskubiko eskuak beherako bidea hartu zuelarik. Ezkerrekoa, berriz, soinekoaren barnekaldea miaztera abiatu zen. Eskubiko eskuak piskanaka gona gora eraman zuen, belauak agerian utziz. Hala ere, bere izter sendoak ikusteko ez zuen ia lanik egin behar izan: oinak nire eserlekuan jarri zituen eta gona erraztasunez jaitsi zen, ene gorputza bi hanka luze horien artean geratu zelarik.

Kuleroak gorriak ziren.

Bere atzamarrek ondo asko zekiten egin beharrekoa, eta baso beltz horretan sartzeko hartu behar zuten bidea laguntzarik gabe aurkitu zuten.

Eta masturbatzen hasi zen.

Bitartean ni han nengoen, zer egin ez nekiela. Bera nirekin jolasten ari zen eta nik ez nekien festa pribatua zen edota gonbidaturik onartuko zuen. Dena den, gauza bat oso argi zegoen: festa ez zuen bukatutzat eman nahi.

Kuleroak kendu zituen.

Eta atzamarren artean, gaueko lehenengo izar disdiratsua bailitzan, altxor bat agertu zen, oso desiragarria iruditu zitzaidana. Atsedetik hartu gabe, hatz trebe horiek aurkitu zutenarekin jolasten jarraitu zuten eta ez zen denbora gehiegirik pasa lehenengo plazer hasperenak botatzeko. Nik jada ezin nuen gehiago.

Baina nire gonbidapena iritsi zen.

Eskubiko eskuaz jo eta fuego ari zen. Ezkerrekoa niregana luzatu zuen eta hitzik esan gabe "etor hadi hona" esan zidan. Berehala ulertu nuen. "Honek ez du laguntzarik behar, argi dago, baina orain arte, nirekin aritu da jolasean eta dagoneko jokua bukatu da".

Belauniko jarri nintzen eta izterrak musukatzen hasi nintzaion. Begirada gora zuzendu nuen, aurpegirantz. Berak irribarretsu begiratu zidan eta berriro itxi zituen begiak. Oraingo honetan ere ez zuen

ezer esan behar izan, begirada horrek dena esan baitzuen. Beraz, begiak jaitsi eta izter miresgarri horiekin jarraitu nuen. Handik gutxira, nire ezpainak beste leku batera zuzendu nituen. Hor, baso beltz horretan murgildu nintzen, beldurrik gabe, eta hain ondo aritutako atzamarrak kendu zituen. Lan erdia egina zegoen eta niri zegokidan lana bukatzea.

Nire mingaina, atsegin handiz, klitoriaren inguruan jolasten hasi zen. Bitartean berak ez zuen denbora alferrik galdu nahi, beraz, lehen libre utzitako eskuak titiak laztantzera dedikatu ziren, hasieran emeki eta gero bortizki. Nik bai mingainaz bai hatzez egiten nizkion laztanak geroz eta gustorago hartzen zituen. Noizbehinka, plazer espasmo batek eraginda, zangoak ixten zituen azkar eta bortizki baina berehala zabaltzen zituen berriro, gonbidatuak bere losin eta musu goxo horiekin jarrai zezan.

Plazer espasmoak eta oihu txikiak.

Hauek sarriagotan suertatzen hasiak ziren. Lehertzeko moduan zegoen. Jadanik ez zen sartzen bere eserlekuan. Eserlekua txiki-txikia geratu zitzaion. Gorputz eder hori kontrol gabe mugitzen zen. Une horretan, bidaiariren bat sartu izan balitz ere ez ginen konturatuko, ez baikenuen tutik ikusten. Haren eskuek ez zioten uzten nire buruari lorategi zoragarri hortatik alde egiten, eta orduan nire ezpain zoriontsuek lorategiko lorerik ederrena xurgatu zuten azkenengo aldiz.

Oihu luze batez bukatu zen. Orgasmo baten ondorengo isiltasuna nagusitu zen. Trenaren traka-traka-traka eta gure arnasa besterik ez nuen entzuten.

Zutitu eta eseri egin nintzen. Pozik. Izerditan blai eta ahoa lehor-lehorra. Kuleroak jantzi zituen.

Ez zuen ezertxo ere esan. Egia esanda, ez zen beharrezkoa. Hurrengo geltokian altxatu eta aterako bidea hartu zuen. Ziurrenik ez zen bere geltokia izango. Baina jaitsi baino lehenago, begiratu zidan irribarretsu eta azkenengo aldiz, begirada zoriontsu baten bidez, esan behar zidan guztia hitzik gabe adierazi zidan. "Eskerrik asko, neskatxa".

Eta begirada hori ikusi nuenean, ni ere munduko emakumerik zoriontsuena sentitu nintzen.

IRAKURTZEAN IZANDAKO ARAZOAK

Zerrenda itzazu ipuin hau irakurtzean izandako arazoak eta izandako esperientzia:

- Lehenengo irakurketak sortu dizun inpresioa
- Irakurri bitartean izan dituzun arazoak
- Ulertu ez dituzun hitzak, esapideak...

IPUINAREN IRAKURKETA GIDATUA

Ipuin hau irakurtzean, arazo bati egin beharko diozu aurre. Erronka hori gainditzen lagunduko dizugu hainbat galdera eginez eta bukaeran erantzunak emanda.

SORPRESA

Misterioak eragindako suspensean, irakurleak badaki sekretu bat dagoela baina ez daki zein irtenbide izango duen. Idazleak lehia ezartzen du irakurlearekin, eta **harritu** egin behar du. Irakurlearen jakin-mina pizten du horrela.

Peter Wollen semiologoak ondoko misterio-motak bereizten ditu :

- *suspensea*: irakurleak badaki sekretua baina pertsonaiak ez
- *misterioa*: irakurleak ez daki sekretua baina badaki sekretu bat dagoela
- *sorpresa*: irakurleak ez daki sekretu bat dagoela bat-batean erakusten zaion arte

Erreferentzia: Lauro Zavalaren *El suspenso narrativo*: http://www.avizora.com/publicaciones/literatura/textos/0092_suspenso_narrativo.htm

GURE SORPRESA

"Eta begiak itxi zituen" ipuinaren kasuan, pertsonaien inguruko sorpresa izan dugu. Ipuinean agertzen den pertsonaia batekin sorpresa hartu dugu; espero ez dugun zerbait deskubritu dugu. Bukaerako sentsazioa hauxe izan da:

Idazleak engainatu egin nau!

TESTUAREN LEHEN LAU PARAGRAFOAK

Gaupasa egin ondoren, goizeko tren hartu eta etxera joatea oso gauza arrunta da. Hamaika aldiz egindako bidaiak. Batzuek kotxerik ez dutelako. Beste batzuek, alkohol gehiegi edango dutelakoan, kotxea etxean utzi dutelako. Nolanahi ere, goizeko tren horietan jende ezberdin asko elkartzen da, nahiz eta beraien artean hitz bakar bat ere ez esan. Gehienetan erdi hutsik doazen bagoi horietan, mozkortia eta langilea, parrandazalea eta mendizalea, elkarren aurrean esertzen dira. Ohetik altxatu berria lanera doana eta, lana egin ondoren, ohera doana. Berehala ahaztutako zaizkizun aurpegi arruntak... edota hain erraz ahaztuko ez zaizuna, baldin eta niri gertatu zitzaidana gertatzen bazaizu.

Bera Tolosako apeaderoan sartu zen. Goizeko 6ak ingurua izango zen. Iruna ailegatzeko ordu eta laurden falta zitzaidan, eta nire begiek, aspaldiko partez, ohea besterik ez zutela ikusi nahi esaten zidaten. Hala ere, bera bagoian sartu zenean, berehala esnatu nintzen, nire aurreko eserlekuan eseri baitzen.

Bagoia erdi hutsik zegoen.

Eseri zenean, "kaixo" lotsati bat baino ez zuen esan eta nik "epa" erantzun nion.

Zenbat pertsonaia agertzen da ipuinean? Horretarako nahikoa duzu lehenengo lau paragrafoak irakurrita, elkar agurtzen duteneraino.

- Bat
- Bi
- Ez dakit

LEHENENGO PERTSONAIA: TRENEAN SARTU ZEN NESKA

Bera Tolosako apeaderoan sartu zen.

Eseri zenean, "kaixo" lotsati bat baino ez zuen esan eta nik "epa" erantzun nion.

Oso polita zen.

Bere jazkeragatik lanetik ez zettorrela erraz asko ikusten bazen ere, ez zeukan gaupasazale guztioi geratzen zaigun ohe-bat-behar-dut-erdi-mozkortuta-nago-ta aurpegi hori.

Ni baino 10 urte helduagoa izango zen, 30 urte ingurukoa.

Eta ikusten nuena oso gustokoa nuen.

Soineko beltz bat zeraman leporaino, mangarik gabekoa. Atzetik lotzen diren horietarikoa. Ez zeukan eskoterik. Ilea, Pulp fiction pelikulan ateratzen den neskarena bezalakoa, hots, zoragarria. Ezpainek, gorri leun batez margotuak, edonor zorionaren mundura eramateko sortuak zirela ziruditen. Bere begiak marroiak ziren. Oso handiak. Begirada marroi hori mantentzea, ezerosoa izateaz gain, ez zitzaidan batere erraza suertatzen. Dena dela, oso erakargarriak ziren.

Eta begietatik jeistean, zerekin eta bularrekin egin zuten topo..., bera titiei begira nengoela konturatuko zela ziur bainengoen. Handiak ziren. Akaso soinekoa estuegia. Formak oso ondo markatuak zeuden. Bikainak.

Nola imajinatzen duzu trenean sartu den neska?

Aukeratu zenbaki bat 1etik 6ra


1



2



3



3



4



5



EBAZPEN POSIBLEAK

- **Lehena:** Bai, emandako informazioagatik, hau izan daiteke. Baina, honek 30 urte baino gehiago ditu eta ez du ematen *horrelakoak* egiteko moduko neska denik.
- **Bigarrena:** Honen irudia ez dator bat emandako informazioarekin. 30 urte inguruko neska dela esaten digute eta honek dexente gehiago ditu.
- **Hirugarrena:** Bai, emandako informazioagatik, hau izan daiteke.
- **Laugarrena:** Ezin da izan. Ipuinean *neska* dela esaten digute.
- **Bosgarrena:** Ezin da izan. Ipuinean *neska* dela esaten digute.
- **Seigarrena:** Ezin da izan. Ipuinean *neska* dela esaten digute.

BIGARREN PERTSONAIA: NARRATZAILEA

Hona hemen ipuinean bere buruaz esaten diguna:

"Gaupasa egin ondoren, goizeko tren hartu eta etxera joatea oso gauza arrunta da. Hamaika aldiz egindako bidaiak. Batzuek kotxerik ez dutelako. Beste batzuek, alkohol gehiegi edango dutelakoan, kotxea etxean utzi dutelako. Nolanahi ere, goizeko tren horietan jende ezberdin asko elkartzen da, nahiz eta beraien artean hitz bakar bat ere ez esan. Gehienetan erdi hutsik doazen bagoi horietan, mozkortia eta langilea, parrandazalea eta mendizalea, elkarren aurrean esertzen dira. Ohetik altxatu berria lanera doana eta, lana egin ondoren, ohera doana."

(...)

"... eta nire begiek, aspaldiko partez, ohea besterik ez zutela ikusi nahi esaten zidaten. Hala ere, bera bagoian sartu zenean, berehala esnatu nintzen, nire aurreko eserlekuan eseri baitzen."

(...)

"Eseri zenean, "kaixo" lotsati bat baino ez zuen esan eta nik "epa" erantzun nion. "

(...)

"Nondik etorriko ote da?" pentsatu nuen.

(...)

Ni baino 10 urte helduagoa izango zen, 30 urte ingurukoa.

Begiratzen hasi nintzaion. Hala ere, begira nengoela konturatu bezain laster, beste aldera begiratu nuen erabat lotsatuta. Berehala ohartu nintzen kanpoko iluntasunak leihatila ispilu bihurtzen zuela; beraz, zuzeneko begiradak eta ispiluak eskaintzen zidan aukera tartekatzen hasi nintzen nire azterketa egiteko.

Eta ikusten nuena oso gustokoa nuen.

(...)

Hori guztia ikusita, neure buruari debekatu nion lepotik bera ikusten nuena aztertzen jarraitzea, ordurako bero samar bainengoen, baina, askotan gertatzen den legez, nire begiek ez zidaten jaramon handirik egin.

Ez zuten nahi izan.

Eta begietatik jeistean, zerekin eta bularrekin egin zuten topo, eta nire begi maltzurrek hortik azterketa sakon bat egin arte ez mugitzeko erabakia hartu zuten. Erabaki honek urduritasun zein antsia handia sortarazi zidan, bera titiei begira nengoela konturatuko zela ziur bainengoen. Handiak ziren. Akaso soinekoa estuegia. Formak oso ondo markatuak zeuden. Bikainak. Titi punta pare horrekin zer egin pentsatzen hasi nintzen eta ideia dexente bururaten zitzaizkidanez, beste alde batera begiratzer behartu nuen nire burua.

Baina ezinezkoa izan zen.

Orduan triangulu perfektua asmatu nuen: *bularrak-begirada-ispilua*, eta angelu ezberdinetatik begiratzeari ekin nion.

(...)

Bera bagoian sartu bezain pronto, holako neska puska batekin nire etxeko ohean egingo nituzkeen milaka lizunkeria bururatu zitzaizkidan eta une horretan, berriz, pentsatutakoa gauzatzen ari zenean, ea bagoia hutsik zegoen jakitea besterik ez zetorkidan burura.

(...)

Nola imaginatzen duzu narratzailea?

Aukeratu zenbaki bat 1etik 6ra


1



2



3



3



4



5



IPUINAREN BUKAERA

Hara nola bukatzen den ipuina. Erreparatu non kokatu duen idazleak sorpresa.

Ez zuen ezertxo ere esan. Egia esanda, ez zen beharrezkoa. Hurrengo geltokian altxatu eta aterako bidea hartu zuen. Ziurrenik ez zen bere geltokia izango. Baina jaitsi baino lehenago, begiratu zidan irribarretsu eta azkenengo aldiz, begirada zoriontsu baten bidez, esan behar zidan guztia hitzik gabe adierazi zidan.

“Eskerrik asko, neskatxa”.

Eta begirada hori ikusi nuenean, ni ere munduko emakumerik zoriontsuena sentitu nintzen.

SORPRESA

Hara! Hau ustegabea, ezta? Gehienok planteatu ere ez dugu egin ipuinaren protagonisten sexua. Baina idazleak horrekin jokatu du eta gehienok pentsatu dugu narratzailea gizona dela. Eta gu harritzea lortu du narratzailea neska dela esanda!

ZER DERITZOSU IPUINARI?

Irakurri berri duzu Xabier Etxanizen *Eta begiak itxi zituen* ipuina. Ariketa honetan hainbat gai proposatu nahi dizkizugu eztabaidarako:

Ipuinaren ulermenaz

- Nola sentitu zara lehen aldiz irakurri duzunean? Ulertu al duzu?
- Zein zailtasun izan dituzu irakurketan zehar? Nola konpondu dituzu?
- Zer espero zenuen irakurtzen hasi eta paragrafo batzuetara?
- Ipuinaren amaieran harritu zara? Espero al zenuen amaiera hori? Zergatik?
- Ipuinean zehar ba al zen daturik horrelako amaiera bat izango zela aurreikusteko? Sumatu al duzu horrelako zerbait irakurtzen hasitakoan?
- Antzeko kontaketa-modua darabilen beste ipuin, nobela, filma... ezagutzen duzu?

Ipuina bera

- Gustatu al zaizu ipuina?

Aingeru Epaltzaren kritika

[...] *Idazlea tarte zurietan ere mintzatzen da eta irakurlearen irudimenak tarte zuri horiek letrekin belztea du eginkizun. Betelan horretan sortzen ahal diren oker eta gaizki ulertuak jolasgai gisara erabiltzen ditu Xabier Etxaniz Rojok, Begiak itxi eta kitto narrazio bilduman.*

[...] *“Zergatik irakurri idatzita ez dagoena?” galdetzen dio bere buruari ipuinetariko bateko narratzaileak. Eta galdera maltzur hori pausatuz, Etxanizek ezeztaturik utziko ditu irakurle ustez inteligenteak narrazio horretako mikroistorioen artean hartaraino eraiki dituen ustezko zubiak. Zubirik ez da. Loturarik edo osotasunik ere ez. Irakurlearen gogoak baizik ez du bat egin berez anitz dena. [...] Ezen, kontakizunaren bukaeran erraten zaigun bezala, bizitza honetan ezer gutxi baita ematen duena. Are gutiago literaturan, biziaren ispilu oker.*

[...] *Begiak itxi eta kitto liburuko zazpi narrazioak irakurtzean, irriño konplizea loratuko zaigu maiz ezpainetan. Barre algaratan lehertuko ere, beharbada, halako pasarteren batean. Idazlea gutaz trufatu den edo ziria sartu digun sentipena ere ez da izanen, behin baino gehiagotan, aparte. Izan ere, irakurlearekin jostetan aritzeko, hura ustekabetzeko eta ezuste horretan gozarazteko ahalegina dugu liburu honetako alderdirik eskergarrienerariko bat. [...] Eta hori guztia, su-bestetatik urrun, kontamolde eta hizkera zuzen batean. Xabier Etxaniz Rojo proposamen atsegina honekin agertu zen, duela urte guti, euskal literaturaren balkoira. Ez dakit bere lekua egin duen jadanik, baina merezi du gure arreta.*

Nabarra aldizkarian argitara emandakoa baina Kritiken Hemerrotekatik hartua: <http://kritikak.armiarma.com/>

Kritika osoa: <http://kritikak.armiarma.com/?p=959>

ERA HONETAKO BESTE BATZUK

Atal honetan era bereko ipuin, narrazio, film eta bestelakoak jasoko ditugu.

- Jaio, Karmele (2007): Zu bezain ahul, Elkar, Donostia
- Mirande, Jon: Guaz parke batean:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MirandeNarrazioak012.htm>
- *Los otros* filma: <http://www.labutaca.net/films/4/losotros.htm>
- *El ilusionista* filma: <http://www.labutaca.net/films/43/theillusionist.htm>

MATERIAL OSAGARRIAK

LESBIANAK, IA IKUSEZINAK

Jarraian Jakes Goikoetxeak [Berria egunkarian](#) argitara emandak *Lesbianak, ia ikusezinak* izeneko artikulua irakurriko duzu.

TESTUAREN HASIERA

Irakur ezazu artikuluen hasiera:

Lesbianak, ia ikusezinak

Lesbianen ikusgaitasunari eta parte-hartzeari buruzko ikerketa bat kaleratu du EAEko Arartekoak
JAKES GOIKOETXEA

Donostia

«Zu barnean ez zauden mundua deskribatzen denean, desoreka psikikoko momentu bat gertatzen da, ispilu batean begiratu eta ezer ikusiko ez bazenu bezala. Indar espiritualak behar da hutsune horri, zu bota zaituzten ez-izate horri, aurre egin eta altxatzeko, ikus eta entzun zaitzaten exijituz». Adrienne Rich poetaren hitz horiek erabili ditu Inmaculada Mujikak lesbiana askok gizartean bizi behar duten ikusezintasuna, ez-izatea, adierazteko.

Taldeka zaudetela, eman ezazue iritzia artikuluen gaiari buruz.

(...) ispilu batean begiratu eta ezer ikusiko ez bazenu bezala. Adrienne Rich poetaren hitz horiek erabili ditu Inmaculada Mujikak lesbiana askok gizartean bizi behar duten ikusezintasuna, ez-izatea, adierazteko.

TESTUAREN ATALAK ETA HIPOTESIAK

Hona hemen artikulua osatzen duten atalen izenburuak. Zure lana izenburu bakoitzaren azpian, bi-hiru lerrotan, atal horren zer informazio agertuko den aurreikustea da. Gero, testua irakurtzen duzunean beteko duzu hirugarren zutabea.

Artikuluaren atalak	Zure hipotesiak	Testuak dioena
<ul style="list-style-type: none">• Arrazoiak		
<ul style="list-style-type: none">• Ikusgaitasuna		
<ul style="list-style-type: none">• Lesbianismoaren aurkikuntza		
<ul style="list-style-type: none">• Familia		
<ul style="list-style-type: none">• Hezkuntza		
<ul style="list-style-type: none">• Adina		
<ul style="list-style-type: none">• Ezkontza		

TESTU OSOA

Irakur ezazu testu osoa

Lesbianak, ia ikusezinak

Lesbianen ikusgaitasunari eta parte-hartzeari buruzko ikerketa bat kaleratu du EAEko Arartekoak

JAKES GOIKOETXEA

DONOSTIA

«Zu barnean ez zauden mundua deskribatzen denean, desoreka psikikoko momentu bat gertatzen da, ispilu batean begiratu eta ezer ikusiko ez bazenu bezala. Indar espiritual behar da hutsune horri, zu bota zaituzten ez-izate horri, aurre egin eta altxatzeko, ikus eta entzun zaitzaten exijituz». Adrienne Rich poetaren hitz horiek erabili ditu Inmaculada Mujikak lesbiana askok gizartean bizi behar duten ikusezintasuna, ez-izatea, adierazteko.

Inmaculada Mujika soziologoa, psikologoa eta Aldarte gay, lesbiana eta transexualen arreta zentroko langilea da. 2005ean EAEko Arartekoak beka bat eman zion Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako emakume lesbianen ikusgaitasunari eta parte-hartze sozialari buruzko ikerketa bat egiteko. Mujikak 18 lesbianari egindako elkarrizketetan eta urteotako eskarmentuan oinarritu zuen ikerketa. EAEko Arartekoak ikerketa liburu batean bildu eta atzo aurkeztu zuen, Donostian.

Arrazoiak

Mujikaren iritziz, lesbianak ez ikusteko bi arrazoi nagusi ditu: «Alde batetik, gizartearen balio sexistak: moztu egiten du emakumeen sexualitatea eta beren bizimoduak genero betebeharrak betetzeko estutzen ditu. Bestetik, heterosexualitatea bete beharreko sexualitate bihurtzen da guztientzat eta lesbianak ezkutatuta, gutxietsita eta estigmatizatuak geratzen dira».

Emakumeei etxeko lanetan, familian eta zaintzan ezartzen zaien erantzukizun handiagoak lesbianen ikusgaitasuna mugatzen duela dio Mujikak: «Hipererantzukizun horren ondorioz, emakumeek errazago jokatzen dute besteen interesen arabera, beren ongizateari uko eginez. Eta asko murrizten da beren aisialdirako duten denbora. Denbora hori funtsezkoa da harreman afektiboak eta sexualak izateko».

Ikusgaitasuna

Zer da ikusgai izatea? Funtsean, lesbiana dela esatea. Mujikak bi ikusgaitasun mota bereizi ditu: indibiduala eta kolektiboa. Prozesu konplexua dela dio.

Mujikak elkarrizketatutako emakumeen artean ikusgarriagoak dira eremu pribatuan (familia, lagunak) publikoan baino (lanean, kalean, komunikabideetan...). «Horren jatorria emakumeen sexu heziketa da: sexualitatea modu intimoan bizitzen erakusten diete».

Lesbianismoaren aurkikuntza

Sorpresa. Ezjakintasuna. Bat-batekotasuna. Nahasmendua. Hori sentitu zuten Mujikak elkarrizketatu dituen emakume gehienek lesbianak zirela sentitu edo jakin zutenean.

Batzuek krisiren bat ere pasatzen dute, beren «barneko eraikina» gainbehera erortzen da. «Nortasun bideragarri eta positibo baten aurkitzeko borroka hasten dute», Mujikaren esanetan. Baita neska gazteek ere. Hori gertatu zitzaion 31 urteko Emmari (izena asmatutakoa da). Mutil-lagunarekin sexu harremanak zituenean ez zegoen gustura eta arazo ginekologiko bat zela uste zuen. Mujikaren iritziz, «deigarria» da halako egoera bat gaur egun gertatzea, bai legeetan egindako aurrerapenengatik, bai dagoen informazio ugariagatik.

Erreferentzien garrantzia nabarmendu du Mujikak: «Erreferentzia faltak zalantzak, nahasmenduak eta indefinizio sexualaz gain,aldi asexual luze batetik pasaraz dezake». Lesbiana ezagunen faltak ikusezintasuna areagotzen du, Mujikaren esanetan.

Batzuek estigmatizatuta sentitu dira. Besteak lotsatuta. Batzuk errudun. «Lesbofobiak normal izateko eta talde estigmatizatutik eta bere ondorioetatik ihes egiteko nahia eragiten du, gizartearen aurrean

legitimatzeke», dio Mujikak liburuan. Horren adierazgarri, 42 urteko Gemma: «Gaixotasun hau mutilekin harremanak izanez sendatzen saiatu nintzen, baina ez zitzaidan pasa». 42 urteko Asunta ezkondu ere egin zen: «Normaltasuna bilatzen nuen etsi-etsian, batez ere nire buruarekin».

Familia

Mujikak dio lesbiana izateagatik etxetik bidali dituzten emakume gutxi ezagutu dituela. Horietako bat da Gemma. Aitak jipoitu egin zuen eta erre egin zituen bere gauza guztiak. «Etxetik bidali ninduen. Giltzak kendu zizkidan eta esan zidan etxera itzuliz gero hil egingo ninduela. Amari eta anaiei esan zien nahi nuelako joan nintzela».

Testigantza gehienetan familia izan da emakumeen lesbiana izaeraren berri izan duen azkena. Familiari nola esan da kezka nagusienetakoa. «Duela hiru hamarkadako kezka bera dago gai horren inguruan», Mujikaren esanetan.

Hezkuntza

«Emakume guztiek nabarmendu dute hezkuntza formalak ezartzen dien isiltasuna eredu tradizional heterosexualarekin bat ez datozen sexualitateei», ondorioztatu du Mujikak liburuan. 18tik bik bakarrik jakinarazi zuten eskolan lesbianak zirela. Arrazoa: ondorioek eragindako beldurra.

Emmak eta Mirenek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aintzat hartzen dituen hezkuntza sisteman ikasi zuten. Baina beren esanetatik ondorio bat atera du Mujikak: «Hezkuntza sistema urrun dago gay eta lesbiana nerabeen eta gazteen izaeraren garapen positiboa bermatzetik. Eta eraso moral eta fisikoetatik babestetik».

Emmak baztertu egin zuen gainerakoek mutilen jokaerak edukitzeagatik baztertzen zuten neska bat, bere lagun mina. Mirenek ez zuen burlarik jasan. Baina besteek ere iraintzen zuten mutil gay bat iraintzen zuen.

Liburuan parte hartu duten emakumeetatik inork ez zuen lesbianismoari buruzko azalpenik jaso Lehen Hezkuntzan. Eta sexu heziketari buruzko eskolek ez zuten lagundu beraiek hobeto sentitzen.

Mujikak hezkuntza sistemak heziketa afektibo-sexuala lantzeko dituen hiru muga nabarmendu ditu: ez duela konektatzen ikasle gay eta lesbianek bizi duten prozesuarekin; eskola horiek salbuespenezkoak direla, ez daudela edukietan txertatuta; eta ez dagoela material eta prestakuntza egokirik genero nortasuna, nortasun sexuala edo aniztasun afektibo-sexuala lantzeko.

Adina

Jonek 62 urterekin jakinarazi zuen lesbiana dela. Bizitzan hartu duen erabakirik onenetakoa dela dio: «Barruan daukazun eta kanpora atera nahi duzun poltsa baten modukoa da». Egin zuen lehen gauza elkarte batera joatea izan zen. Hala ere, zailtasunak ditu beste emakume lesbiana batzuk ezagutzeko eta haiekin erlazionatzeko. Mujikak aipatu egin du elkarteek gay eta lesbiana edadetuei laguntzeko duten baliabide falta.

Mirenek 21 urte ditu. Unibertsitate garaian esan zuen lesbiana zela. Familia da bere «oztopo nagusia». «Amak bakarrik daki, baina arazo asko ditu onartzeko». Gurasoen etxean bizi da.

Ezkontza

Mujikak elkarrizketatutako 18 emakumeetatik lau gizonekin ezkondu ziren eta seme-alabak eduki zituzten. Horrek egoera gordinak sorrarazi zituen. «Mutil hau [senarra] ez zen pertsona txarra, maite ninduela esaten zuen eta barre eginarazten zidan», dio Jonek. «Berarekin ihes egin nuen. Ihesbidea zen, iragana, emakumeekin sentitzen nuena, ahazteko modua. Fantasiak atzean utziko nituen, normala izango nintzen». Berea kalbarioa izan zela nabarmendu du: «Ez nuen amodiorik egin ezkondu aurretik eta egin nuenean hasi zen nire kalbarioa. Ez nuen egin nahi, niretzat oinazea zen, baina begiak ixten nituen... eta horrela bizitza guztia».

«Intimitateari dagokionez», jarraitu du, «beste pertsona bat zoriontsu egiten saiatu naiz, ni zoriontsu izan gabe».

Aurorak 28 urte egin zituen ezkondua. «Berarekin nengoenean baztertu egiten nuen, baina sentitzen nuenaren itxura egin behar nuen, jakina! Ezkondua nengoelako eta nire betebeharra zelako».

HIPOTESIAK EGIAZTATU

Konpara itzazu testuan agertzen den informazioa eta aurreko ariketan zuk aurreikusi duzuna.

- Baloratu alderaketa hori 1etik 5era (1 = ez dute zer ikusirik; 5 = erabat bat datoz)

Komenta ezazu zer iruditu zaizun *Lesbianak, ia ikusezinak* testuarekin egindako lana:

- Zer lortu duzu?
- Zertan ikasi duzu?

TESTUAREN EDUKIA

- Ezagutzen al zenituen testuak dakartzan datuak?
- Gai honetaz duzun iritzia ezertan aldatu da?

MUJER CONTRA MUJER

Mujer contra mujer (<http://www.youtube.com/watch?v=B-SKt4OPSsE&feature=related>) da Mecano taldearen kantu ezagunenetakoa bat. Kantuan elkar maite duten bi emakumeren gaia aztertzen da eta horren aurreko jarrerak.

Ariketa honetan abestiaren letra itzultzen saiatuko gara.

Amaieran gure itzupen-proposamena izango duzu.

LETRA	ZURE ITZULPENA
Nada tienen de especial dos mujeres que se dan la mano el matiz viene después cuando lo hacen por debajo del mantel.	
Luego a solas sin nada que perder tras las manos va el resto de la piel un amor por ocultar y aunque en cueros no hay dónde esconderlo lo disfrazan de amistad cuando sale a pasear por la ciudad.	
Una opina que aquello no está bien la otra opina que qué se le va a hacer y lo que opinen los demás está demás.	
Quien detiene palomas al vuelo volando a ras del suelo mujer contra mujer.	
No estoy yo por la labor de tirarles la primera piedra si equivoco la ocasión y las hallo labio a labio en el salón ni siquiera me atrevería a toser si no gusto ya sé lo que hay que hacer que con mis piedras hacen ellas su pared.	
Quién detiene palomas al vuelo volando a ras de suelo mujer contra mujer.	
Una opina que aquello no está bien la otra opina que qué se le va a hacer y lo que opinen los demás está demás.	
Quién detiene palomas al vuelo volando al ras del suelo mujer contra mujer.	

GURE ITZULPEN-PROPOSAMENA

Ez da inola ere berezia,
bi emakumek elkarri eskua ematea.
Ondoren, mantelaren azpitik egitean
dator ezberdintasuna.

Gero, bakarrik, galtzekorik ez dutenean,
eskuen atzetik dator azal osoa.
Ezkatuko maitasuna
eta gorririk ezkatatzerik ez badago ere,
adiskidetasun itxura ematen diote
hirian zehar paseatzen direnean.

Batek dio hura ez dagoela ondo,
zer egingo zaion, bada, besteak
eta gainontzekoen iritziak ez du lekurik.

Nork geldituko ditu usoak airean,
lurretik hain hurbil,
emakumeak aurrez aurre.

Ez naiz ni izango, ez,
lehenengo harria botako duena,
ezpainak elkarturik aurkitzen
baditut egongelan.
Eztulik ere ez nuke egingo
badakit zer egin behar dudan gogoko ez badut
neure harriekin jasotzen baitute euren pareta.

Nork geldituko ditu usoak airean,
lurretik hain hurbil,
emakumeak aurrez aurre.

Batek dio hura ez dagoela ondo,
zer egingo zaion, bada, besteak
eta gainontzekoen iritziak ez du lekurik.

Nork geldituko ditu usoak airean,
lurretik hain hurbil,
emakumeak aurrez aurre.